

ATENTATUA. Ertzaintzaren arabera, Leioan jarri zioten lehergailua, eta Barakaldoraino eraman zuen berarekin

EHUko zinpeko guardia bati bonba jarri diote autoan, baina ez du eztanda egin

Lehergailua gidariaren eserlekuaren azpian jarrita zegoen eta kilo bat leherkari, detonagailua eta pilak zituen

Erredakzioa | BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Leioako campuseko Prosetecnisa enpresako zinpeko guardia bati lehergailu bat jarri zioten atzo bere autoan —Renault 21 marroi bat—, baina ez zuen eztanda egin. Ertzaintzak aditzera eman zue-nez, guardiak campusetik Barakaldoko (Bizkaia) bere etxera arteko bidea egin zuen bonba autoan zeramala.

Gurutzeta auzoko La Paz frontoiaren inguruan autoa aparkatu ostean, gidariaren eserlekuaren azpian zerbait zegoela ohartu zen. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren arabera, zinpeko guardiak autoa arakatu zuen. Lehergailua aurkitu zue-nean edukiontzi batera jaurti zuen, eta Ertzaintzako artezilariei deitu zien. Haiek, iritsi bezain laster, inguru guztia itxi zuten eta kontrolpeko leherketa baten bidez lortu zuten lehergailua indargabetzea.

Lekuko batek adierazi zuenaren arabera, «35 edo 40 urteko gizonezko bat» ikusi zuen autotik jaisten ertzainak bertara iritsi aurretik. Ostean, inguruan zegoen zabor edukiontzietako batetik agenteek «pakete txiki bat atera eta leherrarazi» egin zutela jakinarazi zuen lekukoak.

Zinpeko guardiak Leioako campusetik bere etxera egin zuen bidaia hamar bat kilometrokoa da, eta, ikerketa polizia-



TXEMA FERNANDEZ / EFE

EHUko zinpeko guardiaren autoa aztertu zuten atzo ertzainek, abisua jaso ondoren.

laren datuen arabera, lehergailua bere lantokian bertan jarri zioten. Ertzaintzaren arabera, zineko guardiari jarritako bonba kilo bat leherkariz, detonagailu batez eta pilez osatuta zegoen. Garabiak 17:15ean erretiratu zuen autoa.

Atzokoa EHUko eremu unibertsitarioan gertatzen den bi-

garren atentatu saioa da. Aurreko eraso iragan abenduaren 18an jazo zen, bertako irakasle baten bizkartzainak Kazetaritza fakultateko igogailuetako batean pakete susmagarri bat atze-man zuenean. Orduko hartan ere lehergailuak ez zuen eztanda egin, eta Ertzaintzak indargabetu egin zuen. Atentatu

hura ETak hartu zuen bere gain.

Ordubeteko lanuztea gaur EHUko campusetan

Zinpeko guardiaren aurkako atentatuaren berri izan bezain laster, EHUko errektore Manuel Monterok ekintza gaitzetsi zuen. Gainera, EHUK gaur or-

DATUA

Prosetecnisako bizkartzain lanak

Prosetecnisa enpresako kideak Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean azken urteotan izandako hainbat iskanbilatan nahastuta egon dira. Azkenaldian, segurtasun enpresako kideen zeregina ez da mugatzen campuseko eremua zaintzera. Hala, «zeharkako mehatxuak» jasan dituzten irakasle baten bizkartzain gisa ere aritzen dira.

dubeteko lanuztea egitea eskatu du, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara bitartean. EHUK ohiko lekuetan elkarretartzeko deia egin zien unibertsitatean diharduten kide guztiei.

EHUko soziologia irakasle Gotzone Morak Europa Press agentziari adierazi zionez, atzoko saiakerarekin ETak «kolektibo unibertsitarioa beldurtu nahi du, bertako maila guztiak barne hartuz». Mora PSE-EEko kidea ere bada, eta «pentsamenduaren mundua suntsitu nahi izana» egotzi zien atentatuaren egileei.

«Hemendik mugituko ez gara argi geratu behar zaie», esan zuen Morak, «eta unibertsitateak pentsamendu libreaken bidetik jarraituko du».

ERREAKZIOAK

EHU

«Doilorkeriak eta degradazio moralak haserretzen gaitu»

«Guztion kontrako eraso da. Ez gaitu bakarrik atentatuak haserretzen, batez ere doilorkeriak eta degradazio moralak haserretzen gaitu. Unibertsitatearen kideei eraso egiten dionak, giza izaera berari egiten dio, era berean.»

EAJ

«Eraso horiek ez dira gizarteak maiatzaren 13an markatutakoa»

«Zibilen kontrako eraso horiek ez dira euskal gizarteak maiatzaren 13an markatu zuen bidea. Euskal herritarrek bakea, askatasuna eta elkarriketa errebindikatzea erabaki zuten. Gehiengoaren ideietatik kanpo dago indarkeria.»

GORKA KNORR (EA)

«Maiatzaren 13an herri honek indarkeria deskalifikatu zuen»

«Historian izandako parte-hartze handienarekin, maiatzaren 13an herri honek indarkeria deskalifikatu zuen. Atentatu saiakerak arrasto bat eman digu, irrazionaltasuna noraino iritsi daitekeen, alegia.»

JAVIER MADRAZO (EB-IU)

«ETAren bidegabekeria eta paranoiaren beste seinale bat da»

«ETAren paranoia eta bidegabekeriaren beste seinale bat da. Modu guztietara indarkeria uzteko eskatu dion euskal herritarren borondatea mespretxatzen du ETak. Euskal herritarren eskaerekin bat egin behar du EHk.»

LEOPOLDO BARREDA (PP)

«Bereziki elkarbizitzaren espazioa denari eraso egin diote»

«Bereziki elkarbizitza eta askatasunaren espazioa denari eraso egin dio ETak. Euskal gizartearen askatasuna urratu du berriz. Maiatzaren 13ko emaitzen aurrean bere gorria eta mespretxua agerian utzi du. Odola eta beldurraren bidez bere ideiak inposatu nahi ditu berriz.»

RODOLFO ARES (PSE-EE)

«Abertzaleak ez diren kontra erasoak hedatzea ebatzi du ETak»

«Pertsona edo instituzioen segurtasuna gordetzen dutenen kontra eta abertzaleak ez diren guztien kontra bere erasoak hedatzea ebatzi du ETak. Dolua gizarte-ratzeko EHren estrategia zehatz-mehatz

jartzen ari da martxan, herritarren artean ikara eta mina sorraraziz».

GERMAN KORTABARRIA (ELA)

«Gehiengoaren nahiaren kontra doan logikaren barruan dago»

«Euskal gizartearen gehiengoaren nahiaren kontra doan logika baten barruan daude horrelako ekintzak. Herritarrek ez dituzte onartzen inolaz ere.»

UGT

«Inork ezin du alde batera begiratu»

«Gogogabetasuna, axolagabekeria eta elkartasun eza saihestu eta beldurraren aurrean elkartasuna sortu behar dugu. Inolako indar politiko eta sozialek ezin du aldera begiratu.»